
Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

KONTRATAZIOA ETA EROSKETAK
3 1 ENE 2025
CONTRATACIÓN Y COMPRAS

AGIRI HAU TOKI GOBERNUKO BATZAK ONARTU DU EGUN HONETAN:
DOCUMENTO APROBADO POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DE
11 FEB 2025
Idazkari nagusia / Secretario General

Getxo
bizi ezazu



BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, MANUEL GAINZA APARKALEKUAN ARRETA EMATEKO ETA APARKALEKUA ZAINDU, BABESTU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUARENA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS DEL SERVICIO DE ATENCIÓN, VIGILANCIA, CUSTODIA Y MANTENIMIENTO DEL APARCAMIENTO "MANUEL GAINZA"

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

I. KAPITULUA: KONTRATUAREN ALDERDI OROKORRAK.

1. KONTRATUAREN XEDEA. -

Getxoko Udalak, 2020ko abenduaren 18an, jardunean jarri zuen Manuel Gainza aparkalekua, Manuel Gainza parkean bertan, sestra azpian, hiru solairutan banatutako 242 tokirekin. Plegu honen helburua da, beraz, MANUEL GAINZA APARKALEKUAN ARRETA EMATEKO ETA APARKALEKUA ZAINDU, BABESTU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA kontratatzeko jarraitu behar diren baldintza tekniko berezien multzoa zehaztea.

2. EMAN BEHARREKO ZERBITZUEN IRISMENA.

Enpresa adjudikaziodunak lan hauek egin beharko ditu, eta kontratuaren udal-arduradunak ikus-onetsi egin beharko ditu:

- Aparkalekua langile propioekin kontrolatzea eta, langilerik ez badago, zerbitzua telekudeaketa-sistema batekin bateragarri egitea.
- Ibilgailuentzako nahiz oinezkoentzako sarrerak kontrolatu, zaindu eta mantentze-lanak egitea.
- Aparkalekuan dauden ibilgailuak, ondasunak edo produktuak kontrolatu, zaindu eta babestea.
- Diru-sarrerak eta kobrantzak kudeatzea: kutxa egiaztatu eta kontrolatzea, dirua biltzea, txostenak idaztea, erabilerari eta diru-bilketari buruzko estatistikak egitea, tiketak birjartzea, abonatuei eta egoiliarrei kobratzea, helbideratzeak kudeatzea eta abar.
- Egoiliarrak kudeatzea, informazioa ematea, altak/bajak/aldaketak kudeatzea, hileko diru-bidalketak egitea eta bidalketekin zerikusia daukan edozein kontu bideratzea.
- Erabiltzaileei urteko 365 egunetan eguneko 24 orduetan arreta ematea.
- Instalazioak ondo erabiltzen direla eta instalazioaren indarreko erabilera-erregelamendua betetzen dela zaintzea.
- Aparkalekua eta bertako gelak, sarrerak eta hurbileko tokiak (aparkalekuaren kanpoko perimetroan itxitako korridoreak, kanpoko kasetoiak eta kasetoien estalkiak) aldizka garbitzea, baita lurzoruak urez garbitzea eta hormak, sabaiak eta instalazioko elementuak —programaren arabera— garbitzea ere.
- Sarrerak (beharrezkoa denean, baita beirak ere), eskailerak, tiket-emaileak, kutxazainak eta irakurgailuak egunero garbitzea eta, jariorik, isurketarik, pintaketarik edo gizalegearen kontrako ekintzarik egin bada, horiek garbitzea.
- Aparkalekua egunero oro har berrikustea eta hautemandako edozein gauza edo zabor kentzea, paperontziak hustea, hondar-gordailuak berrikustea eta instalazioan anomaliarik dagoen begiratzea, anomaliok nola konpondu planifikatzeaz batera.
- Instalazioen osasungarritasuna zaintzea, desinfekzioari eta intsektu- eta arratoi-hilketari dagokienez.
- Zerbitzua ondo emateko behar diren kontsumigarri guztiak hornitu eta mantentzea, hala nola abonatuen txartelak, erabiltzaileen tiketak, kutxako eta kutxazain automatikoetako ordainagirien papera, tinda-kartutxoak, inprimatzeko

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG202539320V2ypUBL4o5

zintak eta antzekoak, bulegoko materiala, komunetako kontsumigarriak, sepiolita eta abar.

- Zerbitzuaren berezko ekipoak eta instalazioak ez matxuratzeko edo hondatutakoa konpontzeko mantentze-lanak egitea; besteak beste, hauetan: kutxazainak, kontrol-ekipoak, hesiak, elementu mugikorrak, gidatzeko sistema, ateak, kartelak, komunak, igogailua, instalazio elektrikoa, aireztatzeko instalazioa, euri-uren eta ur beltzen instalazioak, suteak itzali eta detektatzeko sistemak, bideozaintza-sistema eta, oro har, aparkalekuan dagoen edozein sistema.
- Aparkalekuari buruzko abisuak, kexak edo iradokizunak jasotzea, jabeei egokitasunari edo har daitezkeen neurriei buruzko txostena ematea eta, hala egokituz gero, gorabeherak konpontzeko hartutako zuzenketa- eta erantzun-neurriak baloratzea.
- Pertsonen edo ibilgailuen osotasuna arriskuan jartzen duten gertaerei premiaz erantzutea, behar moduan seinaleztatuta eta arriskua saihesteko segurtasun-neurriak hartuta, arazoa behin betiko konpondu arte.
- Indarreko legediaren arabera aplikatzekoa den araudi oro betetzea.
- Aparkalekuan prozesuak digitalizatzeko eta ondo identifikatutako zereginak erregistratu, jarraipena egin eta berrikusteko egin behar diren prozedurak eta lan guztien eskuliburu eta dokumentu normalizatuak zehaztea.
- Zerbitzu hobea emateko benetako hobekuntzak proposatzea Udalari.
- Udalarekin elkarlanean aritzea, instalazioak hobetu eta modernizatzeko (mugikorrarekin ordaintzea, Via T...) edota egin beharreko lanak egiteko orduan.

3. KONTRATUAREN KODEAK.

Kontratuaren xedeari Europar Batasunaren CPV nomenklaturaren kodeak dagozkio:

- 98351000-8 CPV kodea: Aparkalekuen kudeaketa.
- 52.21.24 CPV kodea: Aparkalekuen zerbitzuak.

4. ZERBITZUAREN IRAUPENA.

Kontratu honek, hasiera batean, **BI (2) urteko iraupena izango du zerbitzua ematen hasteko akta sinatzen denetik aurrera**, baina beste BI URTEZ luzatu ahalko da, urtez urte; gehienez ere, LAU urte iraungo ditu.

Enpresa adjudikaziodunak, zerbitzua ematen hasteko akta sinatzen duenetik aurrera, nahitaez eman beharko du zerbitzua, baina ez indarrean den kontratua amaitu aurretik; 2025eko martxoaren 14an iraungiko da oraingo kontratua.

5. KONTRATISTA HAUTATZEKO MODUA.

Kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, hainbat adjudikazio-irizpidetan oinarrituta.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

6. AURREKONTUA.

Zerbitzu-kontratu honek EHUN ETA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (119.982,80 €) balio ditu urtean, gehi dagokion BEZa (% 21), HOGEITA BOST MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (25.196,39 €); beraz, guztira, EHUN ETA BERROGEITA BOST MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (145.179,19 €) balio ditu urtean.

Honako hau da zenbatespena, lizitazioaren balioaren kostuak justifikatzeari eta genero-bereizketari buruzko 100.2 artikuluan jasotakoari jarraituz:

AURREKONTUAREN BANAKETA EUROAK/URTEAN
PRESUPUESTO DESGLOSADO EUROS / AÑO

KONTZEPTUA / CONCEPTO		ZENBATEKOA / IMPORTE
ZUZENEKO KOSTUAK	Langileen GASTUAK	83.433,45 €
	Materialen GASTUAK	15.000,00 €
	Bestelako GASTUAK	5.000,00 €
BATURA		**103.433,45 €**
ZEHARKAKO KOSTUAK, GASTU OROKORRAK (% 10)		10.343,34 €
ETEKIN INDUSTRIALA (% 6)		6.206,01 €
ZERGA-OINARRIA		**119.982,80 €**
BEZa (% 21)		25.196,39 €
URTEKO LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA		**145.179,19 €**

BANAKAPENA **Langileen GASTUAK**	KATEGORIA (pertsona kop.)	GENEROA	ZENBATEKOA (euroak urteko)
Erreferentzia gisa hartutako lan-hitzarmena: Aparkalekuen eta Garajeen Sektoreko Estatutako VII. Hitzarmen Kolektibo Orokorra	1 aparkaleku-agente	G	26.923,74 €
	1 aparkaleku-agente	E	26.923,74 €
	1 arduradun	G/E	29.858,97 €

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

7. ZERBITZUAREN ORDAINKETA.

Zerbitzua ordaintzeko, enpresak hileko fakturak bidaliko ditu; faktura bakoitzean, aurkeztutako eskaintzaren hamabirena jasoko da.

Hilabete bakoitzean, guztizko prezioa ordainduko da, baldin eta kontratuak xede dituen zerbitzu guztiak ondo eman badira.

Kontratua, aparkalekuen inguruko indarreko araudia edo Udalak zerbitzuaren inguruan emandako aginduak, jarraibideak edo instrukzioak ez betetzeagatik egindako arau-hausteen ondorioz enpresa adjudikaziodunari zehapenik ezartzen bazaio, zehapenen zenbatekoa kenduko zaio fakturen zenbatekoari.

8. PREZIOAK ETA PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Administrazio-baldintzen pleguarekin bat datorrena.

9. KAUDIMENA

Hauxe izango da enpresa lizitatzaileek izan beharreko kaudimen teknikoa:
Azkenengo hiru urteetan kontratu bat gutxienez edo hiru gehienez edukitzea lurpeko errotaziozko aparkalekuak (240 toki baino gehiagokoak) kudeatzeko antzeko zerbitzuetan.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena justifikatzeko, urteko negozio-bolumena honako hau izango da, gutxienez:
Ekonomia- eta finantza-kaudimena justifikatzeko, urteko negozio-bolumenak 150.000,00 eurokoa izan beharko du gutxienez, BEZa kenduta, azken 3 urteetako ekitaldiren batean.

10. KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratuan, zenbatekoaren % 20 aldatu ahalko da gehienez ere, zerbitzu-premia handiagoengatik, baldin eta aurrez aurreko zerbitzua ordu gehiagoz eman behar bada, betiere Udalak beharrezko ikusten badu, herritarrei zerbitzu hobea emateko.

11. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA.

Kontratua sinatzen denerako, enpresa adjudikaziodunak erantzukizun zibileko indarreko aseguruaren poliza aurkeztu beharko du, kontratu honen xede diren lanengatik, ekitez edo omisioz, zuzenean nahiz zeharka hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteengatiko erreklamazioei aurre egitea bermatuko duena; ezbehar bakoitzeko, 600.000 euro gutxienez. Jabetzaren ondasunei eta instalazioei eragindako kalteak barruan sartzen dira.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Aseguruan, jabetza aseguratu gehigarri gisa jasoko da, hirugarren izateari utzi gabe. Estalduren artean, hauek egongo dira: lan-istripuen erantzukizun zibila (langileak kontratisten mendeko eremuan sartuta, hala badagokio), produktuen/lanen osteko erantzukizun zibila, azpikontratisten erantzukizun zibil subsidiarioa (egokituz gero), nahi gabeko kutsadura eta defentsa- eta fidantza-gastuak. Azpimuga gehigarri bakar modura, biktima bakoitzeko 450.000 euroko zenbatekoa onartuko da gutxienez, lan-istripuen erantzukizun zibilean.

12. ESKAINTZA TEKNIKOA AURKEZTEA.

Kontratu hau garatzeko emandako dokumentazioaren edukia, azalpena eta xehetasun-maila baloratuko dira; zehazki, hauek:

a) Zerbitzua.

Honako hauek zehaztuko ditu: zerbitzu-programa, prebentziozko edo konpontzeko mantentze-lanak egiteko metodologia, instalazioen eta haien elementuen konponketa eta garbiketa, gorabeheren berri emateko prozedurak, gorabeheren jarraipena eta ereduzko txostenak, ekipoen telekontrolerako software-soluzioa eta software bidez monitorizatutako erantzun goiztiarra (hileko eskuragarritasun-txostena, abisuak eta abar sortzen dituena). Ez dira gehituko irizpide automatikoko eskaintzekin lotutako gaiak, eta hori baztertzeko arrazoia izango da.

b) Antolaketa eta baliabideak.

Zerbitzu honi adjudikatutako langileen zerrenda eta antolaketa, honako hauek adierazita: titulazio egokia, lanbide-kategoria, organigrama, arduraldia, lanpostu bakoitzaren erantzukizunak. Bakoitzaren curriculum vitaea eranskin batean jasoko da, eta eranskin hori ez da kontuan hartuko orrialde-zenbakia ipintzeko.

c) Kontratu honen xede diren lanak egiteko bitarteko material eskuragarrien zerrenda eta deskribapen zehatza.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK.

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak:

A.- FORMULAREN BIDEZ ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK (gehienez, 51,00 puntu).

Formularen bidez zenbatzen diren irizpideek gehienez BERROGEITA HAMAIKA (51,00) puntu jasoko dituzte EHUNEN (100,00) gainean, banaketa honi jarraikiz:

Gehienez ere BERROGEITA HAMAIKA (51,00) puntu emango zaizkio OHIKO zerbitzuaren urteko kostuari dagokion eskaintza ekonomikoari, eta honela banatuko da:

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Eskaintza ekonomikoak honako formula honekin baloratzea proposatzen da:
Gehieneko puntuazioa, BERROGEITA HAMAIKA (51,00) puntu, baliozko proposamen gisa onartutako eskaintzarik onenari emango zaio.
Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoaren eskaintzak ZERO (0,00) puntu lortuko ditu.
Gainerako eskaintzen puntuazioak formula hau aplikatuz kalkulatuko dira:

$$\text{Oinarrizko puntuazioa} = \frac{\text{Gehieneko puntuak x Eskaintza ekonomikorik onena}}{\text{Aztertu beharreko eskaintza}}$$

Eskaintzek ezohiko edo neurriz kanpoko balioak dituztela ulertuko da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.
Lizitazio-oinarria gainditzen duten eskaintzak lizitaziotik kanporatuko dira.

B.- BALIO-JUDIZIOAREN ARABERAKO IRIZPIDEAK (gehienez, 49,00 puntu).
Formularen bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideek edo iritzien araberakoek gehienez BERROGEITA BEDERATZI (49,00) puntu jasoko dituzte, banaketa honi jarraikiz:
B.1.- PROPOSAMEN TEKNIKOA (gehienez 49 puntu):
Hemen, pleguan ezarritako zereginak betetzeko proposamena idatziko du lizitatzaileak, zerbitzuaren antolaketa zehaztuta; bada, kontratu hau garatzeko aurkeztu den dokumentazioaren edukia, aurkezpena eta xehetasun-maila baloratuko dira, zehazki:

a) Zerbitzuaren garapena (25 puntu, gehienez).

- Prestazioen garapena, kontrol-zerbitzuaren antolaketa eta kontratuaren xedearen, barneko eta kanpoko komunikazio-sistemen eta abarren kudeaketa (10 puntu).
- Herritarren eta erabiltzaileen arreta. Erabiltzaileekin eta segurtasunarekin sor daitezkeen gorabeheren protokoloak eta erregistroak. (10 puntu)
- Diru-bilketak kudeatu eta kontrolatzeko, abonatuei ordainagiriak kobratzeko eta abarretarako sistemaren deskribapena (5 puntu).

b) Giza baliabideak (gehienez ere, 4 puntu).

- Langileen eginkizunak, ordutegiak, uniformea, kategoria eta abar, plegu honetan jasotzen den zerbitzuari dagokionez (gehienez, 2 puntu).
- Langileen kualifikazioa eta prestakuntza (2 puntu, gehienez).

c) Bitarteko materialak eta ekipoak (20 puntu, gehienez).

- Aparkalekua osatzen duten instalazioen eta elementuen multzoko ekipoetan, instalazioetan, makinerian, seinaleztapenean, apaingarrietan eta abarretan mantentze-lanak egiteko metodologia (6 puntu).
- Instalazioak zaindu eta garbitzeko plana. (5 puntu)
- Kontrol-sistemak berezkoak ez dituen instalazio orokorren egoera edo funtzionamendua egiaztatzeko protokoloa (adibidez, instalazio elektrikoena, igogailuena, suteen aurka babesteko instalazioena...) (6 puntu).

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

- Garbiketa-zerbitzura atxikitako makineriaren eta lanabesen zerrenda xehea, zenbatekoa, helmuga, marka, modeloa, ezaugarri fisikoak eta, makineriaren kasuan, potentzia adierazita (2 puntu).
- Garbiketa-lanetan erabiliko diren ordezko gaien, substantzien eta, oro har, produktu suntsikor guztien zerrenda xehea (1 puntu).

ESKAINTZA TEKNIKOAREN FORMATUA:
Enpresa lizitatzaileek, irizpide orientagarri gisa eta eskaintzak homogeneizatzeko, eskaintza teknikoaren dokumentazioa aurkeztuko dute, Arial letran idatzita, 10. tamainan, 1,5eko lerroartea utzita, A-4 formatuan, zenbakituta eta 60 orrialde gainditu gabe; A-3 zenbakitua erabiliko da aurkeztu beharreko diagrametarako, eta eranskinak bereiz aurkeztuko dira. Azken horietan, enpresaren berri emateko memoria korporatiboak, proposatutako taldekide bakoitzaren curriculumak, enpresaren kalitate-ziurtagiriak edo esandako orrian aipatzen diren gainerako agiriak jasoko dira. Hirurogei orrialdetik gorako eskaintzak ez dira ez aztertuko, ez baloratuko; horrez gain, eranskinak ez dira zenbatuko, eta adierazitako dokumentazioa baino ez dute jasoko.

14. UDAL-JABETZAKO MATERIALAK. -

Udala da enpresa adjudikaziodunaren esku jarriko dituen azpiegituraren, ekipamenduaren, altzarien eta materialaren jabea, eta zerbitzua eman dezan jarriko ditu haren esku; bada, II. eranskineko planoetan jaso dira elementuok, gutxi gorabehera, eta lizitazio-fasean bertara joateko aukera egongo da. Horretarako, 944660180 telefono-zenbakira deitu beharko da 48 ordu lehenago, udal-teknikariarekin hitzordua jartzeko.

Kontratuaren hasieran, enpresa adjudikaziodunak eta Udalak akta xehatu bat sinatuko dute; bertan, xehetasun handiz jasoko da zer material, baliabide eta ekipo jaso diren zerbitzua abian jartzeko. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du elementuok ondo erabili eta mantentzeko. Kontratua amaitzen denean, enpresa adjudikaziodunak zerbitzu emateko eman zaizkion materiala eta ekipoak itzuliko dizkio Udalari, baita Udalak onetsitako hobekuntza edo aldaketa guztiak ere, erabilera- eta kontserbazio-egoera ezin hobean.

Azpiegiturak trastelekuak dauzka solairu guztietan, baita lokal teknikoak, bulegoak, aldagelak eta komunak ere, edota zerbitzua ondo emateko behar diren instalazioak. Udalak enpresa adjudikaziodunaren eskuetan jarriko ditu guztiak, hark zerbitzu eman dezan, eta enpresa adjudikaziodunak berrikusi egin beharko ditu, eta, hala egokituz gero, baita osatu ere. Bestetik, ezingo dizkie beste batzuei laga.

Udalak beste erabilera baterako bideratu ahalko ditu zerbitzua emateko zertan okupatu ez diren lokalak, eta enpresa adjudikaziodunak lokal horietara sartzen utziko die Udalak baimendutako ibilgailuei.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

15. PREZIOAK.

Udalaren zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko prezio publikoen akordio erregulatzailean finkatuko dira aparkalekuan aplikatzeko prezioak, eta BEZa ezarriko zaie. Enpresa adjudikaziodunak egokitzen diren aldaketa edo zuzenketa guztiak egin beharko ditu zerbitzua ondo emateko, baita unean-unean ezar daitezkeen aldaketa posibleak ere. Enpresa adjudikaziodunak aldaketa horiek edo bestelakoak jaso beharko ditu karteletan eta ekipo informatikoetan, zerbitzua eta diru-bilketa egokiak izan daitezen, Udalari ezer kobratu gabe.

16. KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 202. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, kontratua betetzeko baldintza berezi batzuk ezartzen dira, eta horiek ez betetzeak zigor-taulan ezarritako zehapenak ekarriko ditu.

- 1.500,00 euro urtean, BEZa BARNE, kontratuaren arduradunaren aurrean behar bezala justifikatzeko betebeharrarekin, zerbitzua gauzatzeko faserako, tokiko ekonomiaren aldeko neurri ekonomikoak hartzeko (hots, tokiko merkataritzaren dinamizazioa sustatzearekin zuzenean lotutakoak), baldintza hauekin: zuzeneko hornidurekin tokiko merkataritzako enplegu osagarria aktibatzea, materialak udalerriko dendei eta hornitzaileei erostea, kontratatutako zerbitzuak bertakoak izatea, tokiko ostalaritzan kontsumitzea eta abar.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, eta, langile berriak kontratatu behar badira, ahal dela, kontratua betetzeko baldintza berezia izango da emakumeak eta gizonak txandaka kontratatzea, sartu beharreko alta berrietarako emakumeak kontratatzen hasita, gutxienez udalerriko plantillaren % 50era iritsi arte.

II. KAPITULUA: ZERBITZUA EMATEA

17. ZERBITZUAREN GARAPENA ETA ORDUTEGIA.

Kontrol-zerbitzua aurrez aurre emango da nahitaez, ordutegi honetan gutxienez:

- Astelehenetik asteazkenera 08:00etatik 22:00etara
- Ostegun, ostiral eta larunbatetan 08:00etatik 23:59ra
- Igandeetan 10:00etatik 19:00etara

Langilerik ez dagoen orduetan, urrutiko laguntza eman beharko da urteko 365 egunetan, sor daitekeen edozein gertakari artatzeko, bai urrutitik, bai teknikariak bertaratuta, kasuaren arabera, Udalari gasturik sortu gabe.

18. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Plegu tekniko honen 2. apartatuan zehatz-mehatz jasotzen dira zerbitzuaren ezaugarriak; enpresa adjudikaziodunak, baina, honako prestazio hauek ere bete behar ditu:
Enpresa adjudikaziodunak aparkalekua eta Udalak lagatako guztia zaintzea bermatuko du, eta funtzionamendu-, garbiketa- eta higiene-egoera ezin hobean daudela ziurtatuko.
Enpresa adjudikaziodunak errespetuz erabiliko du aparkalekua, jardunbide onenen arabera arituz, aplikatzekoak diren xedapen eta arau guztiak bete daitezen une oro.
Enpresa adjudikaziodunak beste bati agindu ahalko dio kontratuaren zati den edozein elementu edo zerbitzu konpondu, ordezkatu edo mantentzea, bat etorrita azpikontrataziorako administrazio-baldintzen pleguan xedatzen denarekin.

Zehazki, honako zerbitzu hauek emango dira:

1. Instalazioetako sarrerak eta aparkatutako ibilgailuak kontrolatu eta zaintzea, langile propioen eta instalatutako telekudeaketa-sistemen bidez.
Enpresa adjudikaziodunak, eskaintza teknikoan, zer neurri hartu proposatuko du, honako hauek ondo betetzeari begira: zerbitzua ondo ematea, sarrerak eta irteerak kontrolatzea, instalazioak eta aparkatutako ibilgailuak zaindu eta babestea, tarifak fakturatu eta kobratzea eta zerbitzua gehieneko kalitatearekin ematea, eskura jarritako baliabideak egokituta, betiere Udalaren oniritziarekin.

2. Diru-sarrerak kudeatzea.-
Kutxa egiaztatu, jaso eta kontrolatzea, bildutako dirua jasotzea, kobrantzak egitea, amaitutako kontsumigarriak birjartzea, abonatuei eta egoiliarrei kobratzea, helbideratzeak egitea eta abar.

Enpresa adjudikaziodunak Udalaren protokoloari jarraituko dio hil naturaleko diru-sarrerak eta erabiltzaileekin edota kutxaren kontrolarekin lotutako izapide guztiak kudeatzeko, erraztasun- eta eraginkortasun-irizpideak aplikatuta. Kontratuaren hasieran, enpresa adjudikaziodunak bere kontura jarriko du kanbioetarako dirua, eskuzko kutxan nahiz instalazioko kutxazain automatikoetan, eta, kontratuaren indarraldian, etengabe gainbegiratuko ditu.

3. Herritarren eta erabiltzaileen arreta. -
Aparkalekuaren erabiltzaileek une oro jaso beharko dute aparkalekuaren funtzionamenduari, beren eskubide eta betebeharrei eta tarifa aplikagarriei buruzko informazioa, ondo ikusteko moduan eta irisgarri; horretarako, enpresa adjudikaziodunak hauek egin beharko ditu gutxienez:
-Erabiltzaileek ondo ikusteko moduan jartzea prezio eguneratuak, kontratazioaren baldintza orokorrak eta Udalak edo indarreko araudiak eskatzen duen bestelako edozein informazio; behintzat, aparkalekuko sarreretan eta kobratzeko tokietan.
-Aurrez aurre eta urrutitik komunikatzeko bitartekoak ondo ikusteko moduan eta argi identifikatzea.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

-Gertaerengatik, matxurengatik edo apurketengatik kaltetuta dauden eremuak edo aldi baterako itxi direnak ondo seinaleztatuta eta argiztatuta edukitzea.
-Sortzen diren gorabeheretan erabiltzaileei aholkua eta laguntza berehala (aurrez aurre edo urrutitik) ematen zaizkiela bermatzea.
-"Erreklamazioen liburua" eta "Kexen edo iradokizunen liburua" erabiltzaileen eskura jartzea. Bi liburu horiez gainera, postontzi informatizatu bat jarri ahalko da, modu osagarrian. Enpresa adjudikaziodunak gehienez ere 72 orduko epean erantzungo die kexa, erreklamazio eta iradokizun guztiei. Baliabide horiek edukitzeak ez du galarazten erreklamazio-orriak edukitzea, kontsumo-arloko araudiarekin bat.
-Telefono-linea edukitzea, arreta aurrez aurre nahiz urrutitik eman ahal izateko, ordu-tartearen arabera.
Enpresa adjudikaziodunak egoiliarren administrazio-kudeaketa osoa egingo du (eskatzaileei altetarako, bajetarako edota aldaketetarako egin behar diren prozedurei eta izapideei buruzko informazioa ematea), udal-teknikariaren gainbegiradapean. Udalak emandako jarraibideen arabera, kontuok ondo kudeatzeko behar diren eredu normalizatuak eta datu-baseak zehaztuko ditu, eta gaiari buruz eskatzen dizkioten txosten guztiak egingo; halaber, ordainagiriak bidaltzeko hileko igorpenak egingo ditu.

4. Aparkalekuak eta bertako gelak eta sarrerak zaindu eta garbitzea.
Garbiketa-lanek bermatu egin behar dute toki guzti-guztiak osasungarritasun- eta higiene-egoera ezin hobean egotea, aparkalekuan jarduera normal garatu dadin.
Enpresa adjudikaziodunak garbiketa-jarduerak, maiztasuna, garbiketa-lan bereziak, erabiliko diren produktuak eta abar adierazi beharko ditu zerbitzua emateko proiektuan.
Enpresa adjudikaziodunak jarriko ditu garbiketa-produktuak eta komunetako kontsumigarriak (komuneko papera, esku-xaboia, behin erabiltzeko eskuzapiak, plastikozko poltsak, paperontziak...), bere kontura.
Gutxienez, egunero garbituko dira hauek: komunak (egunean bi aldiz), oinezkoentzako sarrerak, igogailua eta sarrerako bi kasetoietako beirateak barne, kutxazainak, tiket-emaileak eta erabiltzaileei arreta emateko gunea. Beharrezkoa izanez gero, unean-unean eskudunak diren agintariek ezartzen dituzten higiene-neurriak ezarriko dira.
Lau hilez behin gutxienez, aparkaleku osoko lurzoruak xurgatuko dira, eta urez garbitu; halaber, hidrogarbigailuarekin garbituko dira aparkalekura atxikitako kanpoko korridoreak, eta oinezkoen kasetoietako estalkiak eta euri-uren hustubideak berrikusi eta garbituko dira.
Urtean behin, aparkaleku osoa garbituko da, instalazioak eta hormak barne hartuta.
Programatutako mantentze-lanak edozein izanik ere, enpresa adjudikazioduna arduratuko da instalazioak erabilera- eta apaindura-egoera ezin hobean egoteko behar den garbiketa egiteaz.

5. Instalazioen osasungarritasuna mantentzea: desinfektatzea eta intsektuak nahiz arratoiak hiltzea. -

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Enpresa adjudikaziodunak enpresa espezializatu eta baimendu batekin egingo ditu aparkalekua desinfektatzeko eta intsektuak edo arratoiak hiltzeko tratamenduak; gutxienez, URTEAN BEHIN.

Aurreikusitako gutxieneko lanez gainera, Udalak eskatzen dituen tratamendu osagarriak egin beharko ditu edozein arazo puntual konpontzeko, Udalari kosturik sortu gabe.

Kontratistak egindako zerbitzu guztien ziurtagiria aurkeztu beharko du, noiz egin dituen eta zer produktu erabili dituen adierazita.

6. Instalazioen mantentze-lan orokorrak.-
Enpresa adjudikazioduna arduratuko da instalazioetan mantentze-lan orokorrak egiteaz, zerbitzua ematearekin zerikusia daukan guztian. Beste batzuek eragin dituzten eta enpresa adjudikaziodunari zuzenean egotzi ezin zaizkion aparteko jarduketak Udalaren kontura egingo dira; hala ere, enpresa adjudikaziodunak Udalari kosturik sortu gabe jarriko ditu pertsonen, ibilgailuen edo instalazioaren beraren segurtasunari eta osotasunari ez eragiteko behar diren bitartekoak, eta kasuaren arabera beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, Udalak gorabehera konpondu arte.

Enpresa adjudikaziodunak ezingo du instalazioetan eta mantentze-lanen planetan aldaketarik egin, Udala ados ez badago.

Enpresa adjudikaziodunak instalazioen egoerari eta funtzionamenduari buruzko txostena eman beharko du urtero, edo Udalak nahi duenean, lehenago eskatzen badio. Enpresa lizitatzaileek jakin dezaten, honako eremu hauetan egin beharko dira mantentze-lanak:

a) Mantentze-lanak egitea suteen aurka babesteko instalazioetan eta aireztapen-instalazioetan, hodiak garbitzea, motorrak koipeztatu eta berrikustea, funtzionamendu-probak egitea eta, instalazioaren autobabes-planarekin bat, simulakroak egitea.
Aparkalekuak araudiaren araberako segurtasun-sistemak eta suteen aurkako sistemak dauzka. Enpresa adjudikaziodunak araudi aplikagarriaren araberako mantentze-lanak (prebentziozkoak eta konponketakoak) egin beharko ditu, enpresa homologatu batekin eta indarreko araudiaren araberako maiztasunarekin, kontratuaren indarraldian sortzen den edozein intzidentzia konpontzeko.
Sistema horietan sor daitezkeen matxurak edo intzidentziak berehala konpondu beharko dira, pertsonen segurtasuna arriskuan ez jartzeko.

b) Aparatu jasogailuen mantentze-lanak.
Aparkalekuko igogailuan, enpresa adjudikaziodunak bere kontura egingo ditu mantentze-lanak, arrisku orotako modalitatean, eta, gainera:
- Egunero garbitu beharko du, eta ondo dabilela zaindu, ikuskapenak eta konponketak kontrolatuz, hornidura elektrikoan izandako hutsegiteak kontrolatuz eta abar.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

- Bere kontura egin beharko ditu nahitaezko ikuskapenak, baimendutako kontrol-organismo batekin, bat etorrita araudi aplikagarriarekin eta bertan ezarritako maiztasunekin.
Segurtasunagatik, funtzionamenduan anomaliarik ikusten bada, ez da igogailua erabiltzen utziko, eta anomalien berri emango zaie erabiltzaileei, mantentze-lanetako langileari eta Udalari.
Sistema horietan sor daitezkeen matxurak edo intzidentziak berehala konpondu beharko dira, pertsonen segurtasuna arriskuan ez jartzeko.

c) Instalazio elektrikoen mantentze-lanak, hondatutako argien eta ekipoen aldaketak barne hartuta. Enpresa adjudikaziodunak ziurtatu egingo du argiztapen-sistema ondo dabilela; horretarako, berrikuspenak egingo ditu aldizka, eta hondatutako elementuak aldatu. Halaber, kontrol-organismo batek instalazioak ikuskatuko ditu urtero.
Sistema horietan sor daitezkeen matxurak edo intzidentziak berehala konpondu beharko dira, pertsonen segurtasuna arriskuan ez jartzeko.

d) Aire girotuko gailuen mantentze-lanak.
Adjudikaziodunak gailuok ondo dabiltzala zainduko du, eta eskudun enpresa batek prebentziozko mantentze-lanak egingo ditu, ekipoak berrikustearekin batera, sei hilez behin.

e) Informatika- eta telefono-sistemaren, ordainketa-sistemaren, kontrol-sistemaren eta telekontrol-sistemaren mantentze-lanak.-
Udalak jarriko du aparkalekua kudeatzeko informatika-sistema, PARKARE etxe komertzialekoa, bai euskarri fisikoan (*rack*-ak, SAI sistemak, kommutadoreak, zerbitzariak, monitoreak, teklatuak, inprimagailua, grabagailua, kutxazainak, hesiak, tiket-emaileak, sarrerako kontrol-guneak eta abar), bai egonaldien kontrola nahiz gidatze-sistema kudeatzeko behar diren erabilera-lizentzietan, eta lizentziak mantendu edo berritzeko gastuak eta beharrezko eguneratzeenak bere kargura izango dira.
Udalaren aurretiko baimenik gabe, ezin da aparkalekuko zerbitzaria manipulatu.
Udalak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen duenean ekipoon ikuskapen- eta kontrol-lanak egiteko eskubidea.
Urrutiko kudeaketarako, enpresa adjudikaziodunak bezero-lizentzia bat jarriko du, modu gehigarrian eta bere kontura, behar bezala identifikatuta, aparkalekuan kokatuta dagoen zerbitzarira konektatzeko, betiere Udalaren IKT Sailaren tutoretzapean, eta enpresa adjudikaziodunak hornitu beharko ditu horretarako behar diren ekipoak.
Xede horretarako, adjudikaziodunak komunikazioak instalatu eta mantenduko ditu bere instalazioen eta aparkalekuen artean, puntu-puntu konexio baten bidez edo Internetekin tunelizatutako komunikazio baten bidez.
Udalaren Informatika Sailak ezarriko ditu komunikazio-protokoloak eta CCTVra sartzekoak, aplikatzekoa den legedia betetzeko.
Kontratuaren eskura jarritako ekipo informatikoak aparkalekuko berezko zereginetarako bakarrik erabiliko dira, zertarako instalatu dituzten kontuan hartuta, eta enpresa adjudikaziodunak bere ekipo informatiko bat jarri beharko du, baita beharrezko komunikabideak eta inprimagailuak ere, administrazioak

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

eskatzen dizkion lanak eta txostenak egiteko, fitxaketak kontrolatzeko, emailak bidaltzeko, laneko parteak idazteko eta abar.
Instalazioan, halaber, aparkalekua oro har kudeatzeko zenbait sistema daude (aireztapena, CCTV, suteen kontrako instalazioa, ibilgailu elektrikoak kargatzeko sistema eta abar), baita kudeaketa orokorrerako behar direnak ere; bada, ondo kontrolatu eta mantendu behar dira, egokitzen diren prebentziozko edo konponketako mantentze-lanak eginez.
II. eranskinean, instalazioen planoak eta Udalak zerbitzua emateko jarritako baliabideak jasotzen dira, adibide modura.
Enpresa adjudikaziodunari dagokio aplikaziook berrikusi, doitu eta jardunean edukitzea, eta berak ordaindu beharko ditu aplikaziook egokitzeko eta martxan jartzeko edo hobetzeko gastuak.
Sor daitezkeen gorabeherak edo matxurak lehenbailehen konponduko dira, larritasunaren eta aparkalekuari eragindako kaltearen arabera:

- Zerbitzuari eragiten dioten edo zerbitzua etenarazten duten matxura/gorabehera kritikoak 24 orduan baino gutxiagoan konpondu beharko dira.
- Ohiko matxurak/gorabeherak 72 orduan.
- Matxura/gorabehera arinak, aldi batez alternatibaren bat izan dezaketenak, astebetean konpondu beharko dira.

f) Ur-instalazioaren mantentze-lanak, sistemaren berrikuspena eta garbiketa- eta desinfekzio-tratamenduak (legionella).-
Enpresa adjudikaziodunak mantentze-lanak egingo ditu edateko ura hartzen duten barruko instalazioetan.
Halaber, kontrol-, prebentzio-, garbiketa- eta desinfekzio-tratamendua egingo du gizakiok edateko ur hotzaren, ur beroaren eta suteen aurkako uraren sistema hidraulikoan.

g) Euri-uren instalazioen eta saneamendu-instalazioen mantentze-lanak.-
Kontratistak egoera onean edukiko ditu euri-uren instalazioak eta saneamendu-instalazioak; intzidentziaren bat gertatzen edo alertaren bat pizten bada, horren berri emango dio Udalari.

h) Gidatze-sistemaren mantentze-lanak.-
Ibilgailuak gidatzeko instalazioak ondo dabiltzala zainduko du enpresa adjudikaziodunak, beharrezko konponketak eginez.

i) Sarreren mantentze-lanak eta kontrola.-
Instalazioak, ateak, motorrak, informatika-sistemak eta sistema horien telekontrola ondo dabiltzala zainduko dú enpresa adjudikaziodunak. Ibilgailuak eta oinezkoak sartzeko ateetan, prebentziozko mantentze-lanak egingo ditu lau hilez behin, enpresa homologatu baten bidez; enpresa horrek prebentziozko mantentze-lanak egingo ditu, fabrikatzaileak emandako gomendioak aintzat hartuta, eta higatu daitezkeen osagaiak edo hondatutako osagaiak berrikusi, koipeztatu, doitu eta aldatuko ditu.
Era berean, enpresa adjudikaziodunaren kargura egingo dira instalazioaren funtzionaltasuna une oro ziurtatzeko mantentze-lanak.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Sistema horietan sor daitezkeen matxurak edo intzidentziak berehala konpondu beharko dira, pertsonen segurtasuna arriskuan ez jartzeko.

7. Hobekuntzak eta modernizazioak.

Udalak egokitzat jotzen dituen hobekuntza-ekintza guztiak egin ahalko ditu zerbitzu hobea emateko, bai eta aparkalekua teknologiaren eta kudeaketaren arloko aurrerapen sektorial berrietara egokitzen joateko ere, bere ekimenez edo enpresa adjudikaziodunak proposatuta.

Enpresa adjudikaziodunak hobekuntza horiek sartu beharko ditu zerbitzuan, Udalari gasturik sortu gabe (adibidez, mugikorraren bidez ordaintzeko sistema, APPa, Via T, ibilgailu elektrikoen kargaguneak kudeatzeko soluzio berriak, kargagune berrien ezarpena, informazio-taula digitalen ezarpena...).

8. Zerbitzua emateko beste ohar batzuk. -

- Seinaleztapen horizontala, bertikala, kartelak eta taula argidunak: Enpresa adjudikaziodunak beharrezko aldaketak egingo ditu dauden seinaleak egokitzeko, trafikoaren erregulazioan baldintza berriak edo aldaketak ezartzen dituztenean, baita Udalak eskatuta ere, eta ondo ikusteko moduan edukiko ditu aparkalekuko seinale guztiak, baita kanpoaldeko banderak ere.
- Enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da dauden seinale horizontalak kontserbazio-egoera onean edukitzea; horretarako, aldatu egingo ditu, beharren arabera. PMRCk edozein unetan gainbegiratu ahalko du zer egoeratan dauden, eta jarraibideak eman; jarraibiderik emanez gero, nahitaez bete beharko dira. Udalak baliozkotu beharko du zer margo mota erabiliko den (osagai bikoitza).
- Enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da, era berean, hormetako, sabaietako, zutabeetako eta instalazio osoko margoa ezin hobeto edukitzea, Udalak onetsitako koloreekin.
- Enpresa adjudikaziodunak PMRCk (edo hark eskuordetutako pertsonak) eskatutako txosten guztiak egingo ditu, bai instalazioko zerbitzarietako datuak erauzi eta prozesatuz, bai instalazioko langileen landa-lanaren bidez, bat etorrita Udaleko teknikariek eta enpresa adjudikaziodunak horri buruz ezarritako prozedurekin.
- Enpresa adjudikaziodunak bufa ganberaren egoera goitik behera egiaztatzeko ikuskapenak egingo ditu urtero, beharrezko ixte-taulak desmuntatuz; gero, dagokion txostena egingo du, hautemandako intzidentzien argazkiak erantsita.
- Prebentziorako nahiz konponketarako egindako ikuskapen guztien txostenak eta albaranak eman beharko ditu, eta horien jarraipena eta artxiboa egin, PMRCren eskura jarrita.

19. GIZA BALIABIDEAK.

Enpresa adjudikaziodunak langile nahikoak edukiko ditu arreta emateko, aparkalekua zaindu eta kontrolatzeko, mantentze-lanak egiteko, dirua biltzeko eta kontratuaren xedea betetzeko behar diren eginkizun guztiak egiteko; honela:

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

a) Aparkalekuan, aurrez aurreko arreta emango da, baldintza teknikoen plegu honen 15. artikuluan ezarritako ordutegien arabera. Aurrez aurreko lana duten langileak euskaraz (lehentasunez) eta gaztelaniaz hitz egiteko gai izango dira, eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere baloratuko da. Gainerako orduetan, urrutitik emango da arreta, baina langileren batek aurkitzeko moduan egon beharko du, beharrezkoa izanez gero instalaziora bertaratu dadin, beranduenez ere 30 minutura, urrutitik kudeatu ezin daitezkeen intzidentziei arreta ematera.
b) Zerbitzua emateko langileen kopuruak nahikoa izan beharko du, lan-zama, oporrak, absentismoak, ordezkapenak eta abar kontuan hartuta. Langileek uniformea jantzi beharko dute, eta identifikatuta egon, korporazioaren nortasun-eskuliburuaren arabera; bestalde, kontratuaren udal-arduradunarekin harremanetan egon beharko dute, behar diren baliabideak erabilita.
c) Enpresa adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du Udalaren aurrean zerbitzuburua izan dadin, eta 24 orduetan aurkitzeko moduan egon beharko du.
d) Lanean ari diren langileek kontratuaren barruan egiten dituzten zereginak aldatzeko modua izango du Udalak, betiere eman behar den zerbitzuarekin lotuta edo Udalarekin zuzenean lotuta badaude, enpresa adjudikaziodunari aurretik abisatuta.
e) Enpresa adjudikaziodunak lan- eta zerga-arloan indarrean den legediari helduko dio, baita aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotzen denari ere.

Horri buruz, III. eranskina erantsi dugu; bertan, oraintxe bertan zerbitzua ematen ari den enpresak emandako zerrenda bat jasotzen da, subrogatu daitezkeen langileena.

20. ZERBITZUA EMAN DELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Adjudikaziodunak zerbitzua eman duela egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko dio Udalari.

Gutxienez, zerbitzua eman izanari buruzko dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

-Kontratistak lan-arloko betebehar guztiak bete dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dizkio Udalari (TC2), elektronikoki, hilean behin, zerbitzua emateagatiko fakturarekin batera.

-Errotaziozko aparkalekuen diru-bilketak eta abonatuenak jaso, kontrolatu eta sartu izana egiaztatzeko agiriak, bat etorrita Udalaren Diruzaintza Sailak horri buruz xedatutakoarekin.

-Aparkalekuko estatistikei eta intzidentziei buruzko hileko txostena, baita egindako mantentze-lanena ere, egunak adierazita. Plegu honen 21. apartatuan garatuta dator.

21. ZERBITZUA ETETEA.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko operazioak egingo ditu, zerbitzua edozein unetan eten ez dadin.
Kontratua hasitakoan, zerbitzua ezingo da guztiz edo zati batean eten, ez laneko arrazoiengatik (adibidez, absentziengatik, gaixotasunen ondoriozko bajengatik, istripuengatik...), ez akats teknikoengatik, istripuengatik edo bestelako arrazoiengatik. Enpresa adjudikaziodunak berehala berrabiaraziko du zerbitzua, baita ezinbesteko kasuetan edo ezusteko inguruabarretan ere.
Enpresa adjudikaziodunak, zerbitzuak guztiz edo zati batean eteten baditu, arrazoia edozein dela ere, dituen baliabide guztiak jarri beharko ditu Udalaren eskura, etenaldia eragin duten kausen berehalako jakinarazpena izaki betekizun bakarra, zerbitzua berehala berrabiaraztea bermatzeko xedez; horrelakoetan, horretarako borondatez aurkezten diren enpresetako langileek egingo dute lan, edo, bestela, Udalak xede horietarako jartzen dituen langileek.

Etenaldia enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal bazaio, Udalak eragin zaion kostua jasanaraziko du, ezar litezkeen zehapenei kalterik egin gabe.

22. ZEHAPEN-ARAUBIDEA.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 192. artikuluan ezarritakoaren arabera, bertan xedatzen dena aplikatzeko aukera egonagatik ere, zehapen- eta zigor-araubide hau ezartzen da:

1.- Kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzeagatik, Udalak zehapenak ezarri ahalko dizkio enpresa esleipendunari. Zehapen horien araubidea baldintza honetan jasotzen da, legeetan edo plegu honetan beste modu batez araututa badaude izan ezik.
2.- Arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izango dira.

3.- Arau-hauste arina izango da plegu honetan jasotzen den edozein betebehar betetzen berandutzea, zerbitzuari, interes orokorrari, erabiltzaileei, Udalari edo beste batzuei kalte egiten zaienean izan ezik.

4.- Arau-hauste larriak honako hauek izango dira:
a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin metatzea.
b) Zerbitzura lotutako edozein obra, instalazio edo ondasun hondatzea eta haren balioa galtzea eragiten duten ekintzak egitea.
c) Aparkalekua edo bertako instalazioak zerbitzuarenak ez diren helburuetarako erabiltzea edo aparkalekuaren erabilera-araubidean edo plegu honetan jasotako arauetan ezarritakoaz bestela erabiltzea.
d) Obren, zerbitzuen, horniduren, zergen, maileguen, aseguruen, bidegabeko sarreren itzulketen eta Udalari edo beste administrazio batzuei, erabiltzaileei, enpresei, entitateei edo partikularrei ordaindu behar zaizkien gastuak ez ordaintzea, zerbitzua ematen ari den enpresak ordaindu behar baditu, kontratuko betebeharren arabera.

Elektronikoki sinatutako dokumentoa eta egiazatatu daiteke / Documento firmado electrónicamente y verificable CSV: GET/PFG/2025/3920 V2ypUBL4o5 https://www.getxo.eus/es/tramites/vd?C=GETPFG20253920V2ypUBL4o5

e) Enpresa adjudikaziodunak kontratuko beste betebeharren bat ez betetzea, horrek zerbitzuari, interes orokorrari, erabiltzaileei, Udalari edo beste batzuei kalte egiten badie.
f) Zerbitzua 10 orduz baino gutxiagoz justifikatu gabe etetea.
g) Behar bezala onetsi ez diren tarifak kobratzea.
h) Ustiapenaren diru-sarreretan arrazoirik gabe atzeratzea.
i) Ustiapenaren kontuak ez koadratzea.

5.- Arau-hauste oso larriak honako hauek izango dira:
a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri metatzea.
b) Konstituzioan aitortzen diren eskubideak eta askatasunak urratzen edo kaltetzen dituzten ekintzak egitea.
c) Enpresa adjudikaziodunak kontratuko beste betebeharren bat ez betetzea, horrek zerbitzuari, interes orokorrari, erabiltzaileei, Udalari edo beste batzuei kalte oso larria eragiten badie.
d) Esleitutako obraren ustiapena bera edo berorren jarraitutasuna arriskuan jartzen duten ekintzak egitea.
e) Prestazioa justifikaziorik gabe etetea, 10 ordutik gorako eperako.
f) Instalazioen erabilera-, polizia- eta kontserbazio-betebeharrak ez betetzea.
g) Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.

